

Golkoko gerraren ondorioez

Gutxi dakigu oraindik Golkoko Gerran gertatuari buruz eta jakina, ez gara liskar politikoez ari. EEBBetako soldaduen artean, *Golkoko sindromea* izenez ezagutzen den gaixotasuna maiz aipatu izan da horri loturik, nahiz eta osasun-erakundeek behin eta berriro *gaixotasun* hitza erabat arbuia. Duela bi hilabete elkartu zen Washingtonen EEBBetako Biologia Esperimentaleko Elkartearen Federazioa eta hortxe eman zen sindromearen jatorriari buruz orain arte eskaini den informaziorik argiena: batetik sintoma guztiak biltzen dituen koadro patologikoa egon badagoela onartzen da; bestetik, horren jatorria soldaduei ematen zitzaien medikazioaren eta intsektuen kontra erabiltzen zuten intsektizidaren nahasketa ei dela aipatzen da.

Sindromearen sintomarik usuenak memoria galtzea, buruko minak, loaren alterazioak, ataxia, azaleko arrazorik ez duen neke-sentsazioa edota arnasketa-arazoak dira. Adituen iritziz, arerioek ustez erabiliko zuten nerbio-gasari aurre egitearren hartzen ziren piluletan ei dago sindromearen gakoa. Pilula horiek substantzia kimiko desberdinak nahasiz egiten dira eta soldaduek ma-

siboki hartu zituzten irakiarrek erabiltzen omen zuten gasaren beldur. Organismoak ez du substantzia horiek guztiak asimilatzerik eta horietarik asko eta asko metatu egin ziren. Intsektizidetako substantzia kimikoekin erreakzioan hastean sortu omen zen Golkoko sindromea.

Ikusiz ikasi

Jaio berriarentzako, mundua ezezaguna da oso. Lehenengo egunetik hasten da bizitza osoan zehar luzatzen den ikasteko prozesua. Baina, nola ikusten du mundua jai berriak hasierako hila-beteetan? Haur-psikologiako azken ikerketen arabera, ondoko irudian agertzen diren sekuentziak gainditu behar izaten ditu umeak munduaz behar bezala jabetzeko. Ordenadoren la-

Jaio berriei aurkezten zaien errealitateak ez du gurearekin zerikusi handia. Ez behizat, ikusmen-sekuentziario osoa gainditu arte. Ondoko irudian, ordenadoren lagunduriko ikerketaren ondorioak "ikus" ditzakezu.



gunduriko ikerketen emaitza horixe da, beraz: giza begiek ere ikasi egiten dute objektuak fokotzen eta zortzi hilabete bete arte ez omen ditugu irudiak bereizten.

Etsialdiaren zergatia

Erditu ondorengo etsialdiaz maiz hitz egin izan da. Erdiminak igaro orduko, erditu ondorengoak etorri ohi direla esaten da eta itxura guztien arabera, karena edo plazentan ei dago beheraldiaren zergatia.


Neurri handi batean, orain arte uste zena baieztatzera dator EEBBetako Osasun-Erakundearen egin duten aurkikuntza. Izan ere, gogo-beheraldiaren jatorria erditu ondoren apurtzen den hormona-oreka zela defendatu izan dute ikertzaileek orain arte eta EEBB-



EEBBetako ikertzaile-talde baten iritziz, erdiberritan sortzen den hormona-desorekan datza emakume askoren gogogabetzea. Karenak neurririk gabe jariatzen duen CRH hormonaren ekoizpena normaldu arte ez omen da egoera hori gaintzen.

-etako aurkikuntzak, teoria hori onestean gain, depresioaren mekanismo osoa zehaztea lortu du.

Estres-egoera baten aurrean, hipotalamoak substantzia desberdin asko askatzen dituen CRH hormona jariatzen du. Horien artean, kortisol izeneko substantzia dago, odolaren glukosa-maila orekatzen eta tentsio arterialari eusten laguntzen duen gaia. Alabaina, haurdunaldiaren azken hiru hilabeteetan karenak hartzen du hormona ekoizteko ardura eta ondorioz, hipotalamoaren aktibitatea gutxiagotu egiten da. Erdiberritan, karena kanporatzen da eta horrekin, CRH hormonaren iturri nagusia; hormonaren ekoizpena erabat desorekatzen da eta hipotalamoari dagokion ekoizpen-maila eskuratu arte, CRH-gabezia ematen da. Eta jakina, hortik dator gogogabetzea.



Poluzio akustikoa

Espainia da Europako herrialderik zarata tsuena. Udal-agintari batzuek, ordea, datu estatistikoak ikusten dituztenean, normala dela diote, ez baitute irudikatzen norvegiar bat kalean kantari eta txaloka. Espainiako legerian ez dago zaratari buruzko berariazko legerik eta kontutan hartzekoa da Espainiako hiri populatu guztiek ez dutela horri dagokion ordenantzarik. Trafikoaren zarata ihes-tutuek, motoreek, sirenek, klaxonek, erruedek asfalto igurtzitzean egiten dutenez osatua dago eta datuen arabera iraunkorrena eta kaltegarriena bera da (85 dezibelekoa izan daiteke; Osasunerako Mundu-Erakundeak onartu-

tako goieneko maila 65 dB da).

Udan gaude eta gutako asko bizi garen lekutik ez oso urruti izango dugu taberna-terrazza, pub-terrazza edo diskoteka-terrazaren bat, moto edota auto zaratatsuen joan-etorriez hornituak eta hotsandiko elkarrizketak goizeko ordu txikiak arte dituztenak. Badira lau zarata-igorpen min-atalasetik hurbileko dezibel-mugak dituztenak: hauek bi gazteen inguruneak dira eta biak borondatezko ekintzak dira: diskotekak (120 dB) eta pop-rock kontzertuak (110 dB). Beste biak mailu pneumatikoa (115 dB) eta motozerra (105 dB) dira. Pertsona gazteen denbora librean iturri zaratatsu asko elkartzen dira: geroz eta potentzia handiagoko musika-ekipoak dituzten autoak, zilindrada handiko motoak, walkman-a, futboleko jarraitzaileak, etab.



Azken aldian, gorreriak eragindako pertsonen batezbesteko adina 60 urtetik 30-45 urte bitartera jaitsi da. Hori guztia, jakina denez, poluzio akustikoaren eragina da.

Espainiako legerian ez dago zaratari buruzko berariazko legerik eta kontutan hartzekoa da Espainiako hiri populatu guztiek ez dutela horri dagokion ordenantzarik.



Ez da harritzekoa, beraz, gorreriaren diagnostiko eta tratamendu protesikoari buruz egin berri den sinposium batean ateratako konklusioen artean honako hiru agertzea: azken garaian, gorreriak eragindako pertsonen batezbesteko adina 60 urtetik 30-45 urte bitartera jaitsi dela, alegia. Hainbat patologia aipatzen dira zarata gehiegik eragindakoen artean: besteak beste, antsietatea, angustia, estresa, digestio-asaldurak, ugalkortasuna gutxitzea, hipertentsio-egoerak, ikusmenaren desorekak eta baita, dezibelak 110etik gorakoak direnean, minbizi-prozesuak azkartzea ere.

Madril edo Bartzelona bezalako hiri handietan populazioaren % 90ak Osasunerako Mundu-Erakundeak markatutako mugez goitiko zarata-mailak jasaten ditu; trafikoa da hiri horietan

benetako gaitza. Automobil-kopurua eta beren higikortasuna, esaterako, izugarri igo da azken hamarkadan, baina hiri erditako kaleak ez dira hazi. Trafiko-zarataren ondorio desatseginak moteltzeko, ingurabide nagusien tar-te batzuetan pantaila isolatzaileak jartzea izan da egin den gauzarik nabarmenena.

Dena den, esan behar da zarata geure etxeetatik kanpo ezik, barruan ere badugula. Arropa- eta ontzi-garbigailuak, telefonoak, ordenadoreak, hozkailuak, telebistak, etab.ek ateratzen duten zarata OMEak markatutako dezibel-mugetara hurbiltzen da edo gainditu egiten du. Udan, aurrekoez gain haizagailua edo aire girotuaren aparatuak izaten ditugu askotan gure inguruan, belarriari bizitza zailago bihurtzen diotenak.

